



## Andre Maria eliza (Portugalete)

Itsasadarraren bokalea ikusten den talaia harkaitzuan dago kokatuta Andre Maria eliza, Erdi Aroko alde zaharrerako kokapen eszentrikoan, alde batetik kokapen hobea izatea galarazten duen topografia txarraren ondorioz eta bestetik hiribilduko portuan zein itsasadarrean kokapenik nabarmenena bilatu nahiaren ondorioz. Kokapen pribilegiatu horri esker, Portugaleteko erreferentzia nagusienetako bat bihurtu da Andre Maria eliza.

1322ko hiri-gutunean ezarri zenez, Andre Mariaren omenezko eliza bat egin behar zen, eta horretarako, Bizkaiko andreak Santurtziko San Jurgi Parrokiatik jasotzen zituen hamarren heren bat eman zen; gainerako hamarrenak hiribilduarentzat gorde ziren. Jatorrizko tenplu hartatik ez dago ezer gaur egun.

Autore guztien arabera (Barrio, etab.), 1492an ekin zitzaion lanei eta ez ziren amaitu 1600era arte. Bi mendeen arteko eraikuntza-prozesu luze horren ondorioz, estilo hibrido eta nahasia du elizak, Erdi Aroko eta Errenazimenduko estiloen arteko nahasketa bat. Joera hori ez zen salbuespena izan Bizkaian; kasu askotan gertatzen zen hala, Bilboko San Antonean adibidez, Errenazimendua astiro-astiro eta zailtasunez ezarri baitzen Bizkaian. Eraikuntza-prozesuan dokumentaturiko egile bakarra berandukoa da, Juan Garita harginarena hain zuzen, 1545 eta 1549 urte bitartean Erriberako kaperen-portada egin baitzuen.

Portugaleteko Andre Mariak hareharri gorrixkaz landutako harria du. Bost zatiko hiru nabeen basiliken planten eredukoa da: erdikoa albokoak baino zabalagoa da. Kaperen baxuak horma-bularren artean daude, lerrotatuak eta sakonak. Ez du gurutzamendurik, eta nabe nagusiak du abside poligonaleko akabera.

Kanpoko aldean, berriz, oso bolumen argia du, paralepipedoan jarritako atal nagusia baitu, etzana, eta bi elementu gehitzen zaizkio horri: alde batean sakristia, eta iparraldeko sarreran dorrea. Atal nagusiak hiru elementu nagusi ditu: nabe nagusia, alboko nabeak eta absideko oktagonoko prisma. Alboko nabeen altuera nabe nagusiaren altueraren bi herenekoa baino ez da, eta hori dela-eta, estribo eta arbotanteen sistema behar da kontrapisua egiteko. Mailaketa horrek triforio bat dakar barruko aldean; triforioa nabe nagusitik doan korridore estu bat da, eta efektu handia duten arku konopialen galeria bat osatzen du.

Zutabe zilindrikoak dira euskarriek eraikuntzaren aldetik duten egitura, arku apuntatuak eusten dituzten erdi-zutabeekin erantsita; erdi-zutabe horiek gurutzadurako gangako arku sortzaileak dira, bai nabe nagusiarentzat, bai albokoentzat. Estilo gotikoa ere azaltzen da ezaugarri hauetan: apuntatuak dira zutabeak eta erdi-zutabeak lotzen zituzten arkaturak, eta absideko leihoak eta alboko gaineko nabe nagusia ere apuntatuak dira.

Honako elementuetan islatzen da errenazimendua: kaperetako ahokoetan, Erriberako portadaren diseinuan, sakristiako sarrerako portadan, koruko atal nagusian eta salazartarren kaperan. Errenazimendua, gainera, apaingarrietan ere ageri da: kaxan sartutako pilastrak eta toskanarrak, eta errenazimenduko landare-apaingarriak.

Dorrea Lucas de Longak 1681ean eginiko proiektuari esker zor zaio, baina ez zen XVIII. mendera arte bukatu. Karlistadetako bonbardaketek kalte handiak eragin zizkion gero, azken atalak (linterna eta kupula) berreraiki behar izan ziren Francisco Berriozabalek 1894an eginiko proiektuaren arabera.

Kalitate handiko altzariak ditu elizak, eta batez ere erretaula nagusia azpimarratu behar da, Euskal Herriko eskultura errenazentistaren lanik nabarmenetako bat. Juan de Beaugrant eta Juan de Ayala eskultoreek egin zuten 1549 eta 1555 bitartean. Beaugrant-ena da izen bereko kaperako Errege Magoen Adorazioa ere. Halaber, Errenazimenduaren aldiko bi pintura flandestar nabarmen daude elizan: Amabirjinaren Koroatzearen Triptikoa eta Amabirjina Haurrekin eta Santiago edo Gorostizako kaperako burdin hesia eta erretaula.

Sakristian, tenpluko urrezko piezak biltzen dituen museo txiki bat dago. Pieza horien artean, Peruko XVII. mendeko Ekisaindu Nagusi bat nabarmentzen da.

Andre Maria basilika 1987 eta 1994 bitartean zaharberritu zen, eta horri esker, edertasun osoa berreskuratu du eraikin azpimarragarri honek.



**Andre Maria eliza**  
Portugalete.